

SARARGIREN BALIO PROPOSAMENA

- Zer da SARARGI?

SARARGI, Komunikazio Bitartekariak izanik, sortu nahi dugun enpresaren izena da, irisgarritasun unibertsalaren arloan diharduen aholkularitza eta zerbitzu enpresa, bezeroei komunikazio eremuaren prestazioak eskeiniko dizkiena hain zuzen ere. Eskuarki, enpresaren helburua irisgarritasun unibertsala sustatzeko produktuak eta zerbitzuak eskaintzea da, publiko orokorra eta sektore pribatu zein publikoko entitateak hartzaile ditugula.

Enpresaren helburu nagusien artean honako hauek daude:

- Administrazio Publikoari PIAU txostena ezartzen laguntzea, eremu pribatu zein publikoan sentsibilizazio tailerrak ematea.
- Informazioaren egokitzapena egitea.

SARARGI-ren zerbitzuen berri emateko webgune bat sortuko dugu. Bertan norbanakoek, elkarteek, enpresek eta administrazioek zerbitzuak kontratatu ahal izango dituzte.

- Zein behar edo arazo konpontzen ditu SARARGI-k?

SARARGI egungo gizartean dagoen behar komunikatibo asetzeko sortu dugu. Bizi garen jendarte oso anitza da, askotarikoak dira ere komunikatzeko moduak, gaitasunak eta trebetasunak. Aldi berean, instituzio publikoetan zein eremu pribatuan espazioen irisgarritasunaren beharra arautzen ari da, irisgarritasun honen barnean, alde fisikoaz gain bestelako eremuak kontutan hartuz. Hain zuzen, espazioak eta zerbitzuak komunikatiboki irisgarriak izatea kontzeptu honek barneratzen duen aldagaietako bat da.

Testuinguru honetan Komunikazio Bitartekariaren profil profesionala ezinbestekoa da, profesional honen konpetentziak arazo hauek ebaztera bideratuta baitaude.

Egungo testuinguruan SARARGI-rentzat merkatuan zabaltzen den aukera azpimarratu nahi dugu. Aurretik aipatutakoaren harira, Euskal Autonomia Erkidegoan (E.A.E. hemendik aurrera) Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integralak¹ (Planes Integrales de Accesibilidad Universal. PIAU gaztelerazko sigletan) garatzeko txostena 2023.ko ekainean plazaratu zuten. Aldiz, Komunikazio Bitartekotzako ikasle gisa, Gasteizko zenbait gune publiko zein pribatu aztertu ditugunean errealitatea bestelakoa dela ondorioztatu dugu. Adibidez, Gasteiztar askok erabiltzen dituzten Gizarte etxeak ez daukate horrelako planik, eta ondorioz, eskeintzen dituzten zerbitzu anitzak ez daude parte-hartzeko aukera parekideetan oinarrituta.

Egoera honetan SARARGI-ren beharra agerikoa da, hots, PIAU-ak diseinatu, plagintzatu, eta ezartzen lagundu ahal duen enpresa.

- [SARARGI-ren BALIO PROPOSAMENA ULERTZEKO ZENBAIT DATU:](#)

- **Zer da PIAU?**

Irisgarritasun Unibertsaleko Plan Integralak plangintza estrategikorako tresna dira. Plan hau administrazio publikoek edo erakundeek sortu dute hainbat eremutako irisgarritasuna hobetzeko (ingurune fisikoa, zerbitzuak, teknologia eta komunikazioa), eta pertsona guztientzako aukera-berdintasuna bermatzeko. Helburua sarbide unibertsala eragozten duten oztopoak detektatzea, ezabatzea edo murriztea, eta ingurune inklusiboa sustatzea da. PIAU onartzerakoan, erakunde horrek inklusiboa izatea eta bertako biztanleen bizi-kalitatea hobetzea bilatzen du, ekitatea eta gizarteratzea eta laneratzea sustatzearen bitartez.

Euskadin, PIAUak Euskadiko Irisgarritasun Estrategiaren barruan kokatzen dira. Estrategia horrek irisgarritasuna azpimarratzen du, hau eskubide unibertsal gisa eta herritar guztien ongizaterako erantzukizun kolektibo bezala aurkeztuz.

¹ (S/f). Euskadi.eus. Recuperado el 9 de diciembre de 2024, de https://www.euskadi.eus/contenidos/documentacion/plan_integral_accesibilidadeus/es_def/Modelo-PIAU_VF-Accessible.pdf

○ **Zer da irisgarritasun unibertsala?**

Irisgarritasun unibertsala ingurune, produktu, zerbitzu edo komunikabide batek izan behar dituen ezaugarrien multzoa da, pertsona guztiek, beren gaitasunak edozein



direla ere, erosotasun, segurtasun, berdintasun eta autonomia baldintzetan erabiltzeko. Hau da, "Guztiontzako Diseinua" aplikatzea dakar, kolektibo jakin batzuk baztertzen dituzten egokitzapen edo aldaketa espezifikoek beharra saihestuz. ONCE Fundazioak (2011)

nabarmendu du irisgarritasun horrek oztopo fisikoak ez ezik, sozialak, teknologikoak, sentsorialak eta kognitiboak ere kontuan hartu behar dituela, erabateko inklusioa bermatzeko.

○ **Zergatik da aproposa SARARGI irisgarritasun unibertsala eta PIAU planak garatzeko?**

SARARGI, Komunikazio Bitartekariak osatuko duten zerbitzu enpresa izanda, ikasketa hauetan eskuratzen diren konpetentziak ezagutzea aipatutako galderari erantzuteko ezinbestekoa da.

Komunikazio Bitartekari baten eginbeharretako batzuk hurrengoak² dira:

1. ***Komunikazio- eta gizarteratze-programak egitea eta abian jartzea.***
2. ***Pertsona gorren, gor-itsuen edo komunikazio-zailtasunak dituztenen ezaugarriei eta premiei buruz orientatzea eta sentsibilizatzea.***

² *Komunikazio-Bitartekotza.* (2023, marzo 30). IES Francisco de Vitoria BHI.
<https://franciscodevitoria.eus/eu/formacion-profesional/komunikazio-bitartekotzako/>

3. ***Erabiltzaileek eta/edo arreta-taldeek jarduera sozialetan, kulturaletan, aisialdian eta denbora librean parte har dezaten dinamizatzea.***
 4. ***Irisgarritasunari eta arreta-kolektiboen inklusioari buruz aholkatzea.***
 5. ***Komunikazioan parte hartzeko eta laguntzeko estrategiak erraztea.***
 6. ***Elkarteen jarduerak egiten eta abian jartzen laguntzea.***
 7. ***Komunikazio-sistema alternatiboak eta handigarriak³ egitea eta ezartzea.***
 8. ***Erabiltzaileen ingurunean komunikazioa erraztea eta erabiltzaileari oinarrizko kudeaketak egiten laguntzea.***
- Zerk bereizten zaitu eta beraz zergatik egongo da bezeroa zuri ordaintzeko prest?

Komunikazio Bitartekariaren figura estatuan berria ez bada ere, iaz E.A.E-n lehenengo promozioa ikasten hasi ginen. Hau dela eta, profil honetako profesional gutxi daude gaur egun E.A.E.-n, are gutxiago elkarrekin eta komunitateari begira lan egiteko elkartzen direnak. Hori dela eta, SARARGI bezalako enpresa berritzailea da, eta ondorioz, merkatuan asetu gabe dagoen gabezi bati heldu ahal izatea SARARGI-ren balio kualitatiboa da.

³ Komunikazio Sistema Handigarriak eta Alternatiboak (KSHA) komunikazioan, hizketan edota hizkuntzan zailtasunak dituzten pertsonen komunikazioa handitu edota garatzeko helburuarekin sortzen diren komunikazio sistema arautuak dira.